

2022ko **Batzar** **Nagusia**

Gai-zerrendako puntuak: 12 • dokumentua

Kapital sozialari egindako borondatezko ekarpenen urteko interes-tasaren proposamena

AURKIBIDEA

Testuinguru ekonomiko globala	2
Kooperatibako testuinguru ekonomikoa	2
Interes-tasaren proposamena	2

Testuinguru ekonomiko globala

- Ukrainako gerrak eta merkatuetako zenbait lehengairen hornikuntzarik ezak inflazio iraunkorreko egoera bat dakarte (% 6,5 2021ean eta % 3,9 2022ko lehen hiruhilekoan).
- Hala eta guztiz ere, banku-sektoreko interes-tasak oso baxuak izaten jarraitzen dute, eta ez dago argi etorkizunean zer joera izango duten (Erreserba Federalak tasak handitu ditu, baina EBZk ez du aldaketarik egin oraingoz).

Kooperatibako testuinguru ekonomikoa

- Merkaturatze-jarduerak emaitza sendoak izaten jarraitzen du, baina bizi izan ditugun energiaren prezio-krisiek agerian utzi dute horiei aurre egiteko finantza-tresnak eskuratzeko premia handia dugula.
- Tresna horietako bat borondatezko ekarpenak dira, oso epe laburrean likidezia lortzeko bizkortasuna eta gaitasuna erakutsi digutenak, eta banketxeen arrisku-batzordeetatik igarotzeko beharrik gabe, zeinak edozein finantzaketa-eragiketaren onarpena asko atzeratzen baitute.
- Banketxeei ordaintzen dizkiegun interes-tasak produktuaren arabekoak dira: % 1,20 eta % 2,75 artekoak. Nolanahi ere, ez dugu uste hori gure kapitalaren interesa finkatzeko erreferentzia bat denik, finantza-produktuak guztiz desberdinak direlako (amortizazio-aldi desberdinak, erabilera desberdinak, etab.).

Interes-tasaren proposamena

Gure ustez, egungo interes-tasa egokia da, eta are gehiago kontuan hartzen badugu borondatezko ekarpenak ez direla bazkideentzat sortutako inbertsio-produktu bat, kooperatiba kapitalizatzeko tresna bat baizik.

Hortaz, honako hau proposatzen dugu: ez aldatzea kapital sozialari egindako borondatezko ekarpenen interesa, eta 2022/07/01-tik 2023/06/30-era arteko aldian gaur egungo %1ean mantentzea.